

Zaborra San Markosetik Urnietara

San Markoseko Mankomunitateak errausketa labea Urnietan jartzea erabaki du. 2007. urtean ireki nahi dute eta ekoiztutako hondakinen %54 erreko da bertan.

Asier Coloma

San Markoseko Mankomunitateak hiri hondakinak kudeatzeko Plan Integrala onartu zuen 2002-2016 eperako. Planaren helburuak zabor gutxiago sortzea, sortzen dena berriro erabiltzea eta bertatik energia lortzea dira. Energia lortzeko, errausketa labearen bidez hondakinetatik energia ateratzea aurreikusi dute. Horretarako errausgailua jartzea erabaki zen, baina, hasiera batean, ez zen zehaztu non egongo zen, ezta zenbat izango ziren ere.


Hainbat leku aztertu ondoren, azkenik, San Markoseko Mankomunitateak errausketa labea hartzeko lekua hautatu du: Urnietako Erratzu industrialdea. Lekua hautatzerakoan kontuan hartu dituzte honakoak: kokapen geografikoa, ingurumenarekiko izango duen eragina, lur azpiko urei ez eragitea eta 2001etik aurrera hondakinen sailkapenerako gunea egotea.

Irekiera 2007an

Eraikuntza lanak 2005ean hasia aurreikusi dute, eta bi urte irautea espero dute. Sei hektareako azalera izango du gunea eta 275.000 tona hondakin jaso ahalko ditu. 23 urtez erabiltzea espero dute. Errausketa labeak 43 lanpostu sortuko ditu, eta urteko, sortzen duen energiaren truke, 6.300.000 euroko diru-sarrerara izango du.

2007rako ireki nahi dute, eta hori arazoa da, San Markoseko zabortegia 2006an itxiko baita. Arazoari irtenbidea emateko, formula irudimentsuak erabiliko dituztela aurreratu dute.

Hondakinen Planak 2016rako sortzen den zaborren %54 bertan erretzea aurreikusten du, eta gainerako %46 birziklatzea. Birziklapen maila hori lortzea benetako erronka da, egun ekoizten den hondakinen %25 baino ez baita birziklatzen.



2016rako zaborren %46 birziklatzea aurreikusi dute

Urnietako gunea Gipuzkoa osorako izatea nahi dute. Txingudiko Mankomunitateak bere zonaldean labe bat eraikitzeko proiektua egina du, baina hura atzera botatzeko prest agertu da, baldin eta Foru Aldundiak zaborren zergan beherapena egiten badie.

Labearen egokitasuna ezbaian

Eguzki mugimendu ekologistako Joan Mari Beldarrainek ez du begi onez ikusten

errausketa labea. *"Sistema garestia eta kutsakorra da. Guk birziklapenaren aldeko hautua egiten dugu, eta %65era hel daitekeela uste dugu"*. San Markoseko Mankomunitateko presidente ohi Xabier Landa ere iritzi berekoa da. *"Hor daude Johannesburgo eta Kyotoko akordioak. Errausgailuaren gasek negutegi efektua areagotu egiten dutela diote"*.

Bestetik, birziklapenerako sentsibilizazio kanpaina ere martxan jarri dute Mankomunitatekoek. Kanpainaren leloa *"Gure zaborra arazo bat, parte har ezazu konponbidean!"* da. Sentsibilizazio kanpaina 302.950 lagunei zuzenduko diete. Kanpainaren baitan informazio liburuxkak banatuko dituzte eta "Birziklatrena" antzezlanaren 35 emanaldi eskainiko dituzte.

